


AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA

JOLASAK



AUSPOA LIBURUTEGIA

J O L A S A K

AUSPOA LIBURUTEGIA

25

COLECCION AUSPOA

Administración: Plaza de Santa María, 2-Tolosa
Dirección literaria: Rvdo. P. Antonio Zavala. S.J.
Colegio S. Ignacio - Ategorrieta - San Sebastián
(Guipúzcoa - España)

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 200 peseta Atzerrian: 275 peseta
Ongilleak: 350 Ale bakarra: 25

AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA

JOLASAK

AUSPOA LIBURUTEGIA

Depósito Legal S. S. 552/63
Número Registro 6024/62

IMPRESO EN "GRAFICAS IZARRA" - PEÑA Y GOÑI, 19 - TEL. 17331
SAN SEBASTIAN (ESPAÑA)

ARKIBIDEA

Itzaurrea	9
Agustin Paskual Iturriaga Ugalde (Mujika G.)	11
I: JOLASAK (Diálogos basco-castellanos)	17
Diálogos basco-castellanos (Mujika G.)	19
Prólogo	21
Lendabiziko jolasa — Conversación primera ...	23
Bigarren jolasa — Segunda conversación	27
Irugarren jolasa — Tercera conversación	30
Laugarren jolasa — Cuarta conversación	32
Bosgarren jolasa — Quinta conversación	36
Seigarren jolasa — Sexta conversación	38
Zazpigarren jolasa — Séptima conversación ...	39
Zortzigarren jolasa — Octava conversación ...	44
Bederatzigarren jolasa — Novena conversación	45
Amargarren jolasa — Décima conversación ...	48
Amaikagarren jolasa — Oncena conversación ...	51
Amabigarren jolasa — Duodécima conversación	55
Amairugarren jolasa — Decimatercia conversa- ción	58
Amalaugarren jolasa — Decimacuarta conversa- ción	61
Amabostgarren jolasa — Decimaquinta conversa- ción	64
Amaseigarren jolasa — Decimasexta conversa- ción	68

Amazazpigarren jolasa — Decimaséptima conversación	73
Emezortzigarren jolasa — Decimaoctava conversación	76
Emeretzigarren jolasa — Decimanona conversación	81
Ogeigarren jolasa — Vigésima conversación ...	84
Ogei ta batgarren jolasa — Vigésima primera conversación	88
Ogei ta bigarren jolasa — Vigésima segunda conversación	93
Ogei ta irugarren jolasa — Vigésima tercera conversación	98
II: JOLASAK (Bertsotan)	103
Jolasak (Mujika G.)	105
Lenengo jolasa	107
Bigarren jolasa	136
Irugarren jolasa	147

ITZ-AURREA

Iturriaga-ren "Ipuyak" bein baño geyagotan argitaratu izan dira; ez ordea "Jolasak". Orregatik "Ipuyak", "Jolasak" baño ezagunagoak dira askozaz ere.

Auspoa-k "Jolasak" argitaratzen ditu gaur.

Liburu onek bi zati ditu: lenengoa, "Diálogos Basco-castellanos" izenarekin euskeraz eta erderaz Ernani-n 1842-garren urtean argitaratu zana; gero, 1857-garren urtean argitaratu zan Napoleon-en ardurapean. Gerostik ere argitaratu izan da, "Baserritarra" Donostiko aldizkarian emezortzigarren jolasaraño, euskeraz bakarrik, eta baita ere "Euskal-Erria" aldizkarian era berean, erderazkorik gabe alegia, baña "Jolas" guziak ez, andik eta emendik aukeratutako batzuk bakarrik baizik (1).

(1) "Baserritarra": 146 zenbakitik (1910-V-7). 167 zenbakiraño (1911-II-25). Zenbaki ontan bukatu zan aldizkari au.

Bigarren go zatian ere "Jolasak" dihoaz, bañan bertsotan, iñoiz argitaratu gabe zeudenak eta Gregorio Mujika jaunak arkitu ta bere "Ernani"ar ospetsuak" deritzayon liburuan argira atera zituanak. "Euskal-erria" aldizkarian ere agertu ziran

Mujika-ren liburu orrek, izenak dionez. iru Ernaniarren bizitza ta lanak kontatzen ditu: Iturriaga, Aita Cardaveraz ta Urbieta.

Dudarik gabe, liburu ortan dago Iturriagaz dakigun guztia edo geyena beintzat. Orregatik, Iturriagaren bizitza ta "Jolasak" argitaratzeko, Mujika-k diona onera besterik gabe aldatu degu.

Iturriaga ez ezik, badira "jolasean", alegia alkar-izketaren gisan, liburu antolatu duten beste zenbait euskal idazle. Alakoak ditugu Soroa, Moguel, Elissamburu (poeta ez, bestea), Agustin Jauregui ta abar.

Iturriagak munduko gauzen berri ematen duan bezela, beste oyek norkbere gaya erabiltzen du, eta danen artean euskal literaturaren sail zabal eder bat ornitzen dute.

AGUSTIN PASKUAL ITURRIAGA UGALDE

Ernani-urian jaio zan 1778'ko Ilbeltza'ren 31'ean. Bataiatzerakoan izen oek jarri zizkio-ten: Agustin, Ignazio, Maria; baña gero be-rak, lendabizikoari Paskual izena ezarri, ta Agustin Paskual esaten zuan beti, beste ize-nak alde batera utzita. Ernani'ko elizan dau-den liburuetan ere, berdingetasun au azal-tzen da, noiz jaio ta noiz il zan dioten orrie-tan (2).

(2) Jaiotzaren ezaguerarako ipiñi zituzten itzak onela diote:

"En primero de Febrero del año 1778, yo el Vicario infraescrito bauticé á un niño que nació á las once de la noche del día de ayer, hijo legítimo de D. Juan José Pascual Iturriaga, y Manue-la Antonia de Ugalde, marido y mujer legítimos; sus abuelos paternos D. Andres Pascual y Da Mi-caela de Iturriaga; los maternos D. Miguel Anto-nio de Ugalde y Maria Agustina de Amitesarove. Pusiéronle por nombre **Agustin Ignacio Maria**, y fueron padrinos don Romualdo de Rivas y Da Ro-sa de Aragón, á quienes advertí el parentesco de la cognación espiritual y de la obligación de

Zerbait ikasten asitzeko ordua Iturriaga'ri etorri zitzaionean, apaizgaientzat ikastetxe bat bazegoan Andoain'en; uste degunez, ikastetxe artan asi zan Iturriaga jakintasunez bere burua ornitzen, eta Andoain'en bereganatzen asi zituan ikaskizunak Oñati'ko Ikastetxe-nagusian osatu zituala esatean, egitik gertu nabillela uste det, egi-egitan ori azalera zitzen duan berririk ez det ikusi baño.

Gazterik, oso gazterik egin zan apaiz, ta egin orduko, bere erriko gogoak zaintzera bialdu zuten.

Azkarra zan; zintzoa ta jakin-naia ere bai. Atsegin aundia izaten zuan zer-edo-zer

instruirle en la doctrina cristiana. **Bernardo Antonio de Ayerdi.**"

Ildakoen liburuetan, Iturriaga'ren izenak 5'g. liburuko 19'g. zenbakia betetzen du. Ona nola:

"Núm. 19. — Día 30 de Marzo de 1851, despues de haber recibido los Santos Sacramentos de confesion, viático y extrema-uncion, murió á las cuatro y media de la tarde, de edad de 74 años, **D. Agustín Iturriaga**, presbítero beneficiado de esta villa de Hernani, hijo legítimo de D. Juan José Iturriaga, de Renteria, y de Da Manuela Antonia Ugalde, natural de ésta. Testó ante D. Juan Martín Berasategui, escribano de esta Villa, y al día siguiente, despues de los funerales acostumbrados, fué conducido su cadáver al Campo Santo de esta Villa de Hernani.—**Juan Pedro Erice.**"

ikasteen; aundiagoa berak zekiana erakustean. Ikasteko ta erakusteko jaioa zala zirudian, erakusteko batez ere.

1818'g. urte-inguruan ikastetxe bat jarri zuan Ernani-n. Iturriaga zan ikastetxeari zegokion guztiaren artezkari, ta laguntzeko, erakuskide bezela, beste bi irakasle zituan: Kaietano bere anaia, ta Larrarte-ko Manuel, orduan Gipuzkoa'n bizi ziran musikalarien artean onenetakoa. Iruren artean izen aundia eman zioten ikastetxeari. Gipuzkoa'ko uri geienetatik gazte ugari zijoazten Ernani'ra Iturriaga'ren menpean jakitearen argitasunak billatzera; ta ez gipuzkoarrak bakarrik, baita beste urrutietako tokietatik ere, ikasle asko biltzen ziran, batez ere Napparro'tik.

Laziotarren izkuntza erakusten zuan Iturriaga'k, beste gauza batzuez gañera, bere ikastetxean, eta diotenez, arrigarria zan izkera ura ikasi erazteko zuan erreztasuna. Beste toki guztietan mutillak iru urte bear izaten zituzten laziotarren izkera ikasteko; Iturriaga'renak bi besterik etzituzten bear. Ta ala ere, zekitena agerrera Oñati'ko ikastetxera zijoaztenean, beste guzrien aurretik jartzen omen ziran Ernani'ko gazteak, Ciceron'ek ospetu zuan izkuntza besteak

baño obeto irakurri, ulertu ta itzegiten zutelako.

Jakiteko, ikasi nai izatea da naikoa, ta beti ikasi liteke. Erakustea ez da ain gauza erreza. Erakusten dakianak, geienetan berez daki. Beretzat asko dakian batek erakusten ez jakitea, sarri gertatzen da. Gutxiago dakianak geiago dakianak baño obeto erakustea ere askotan ikusitako gauza da. Iturriaga'k asko zekian, ikas zalea zan-eta. Baña gañera, zekiana erakusteko berezko erreztasun aundia zuan. Erreztasun onek esan-erazi zion bere ikasle argitsuenetako bati: *Iturriaga'k, dakian baño ere geiago erakusten du* (3).

Iturriaga ikasnaia zala esan det. Bai, ikasnaia zan. Eta ikasteko, asko zekiten jaunak biltzen ziran tokietara joaten zan; asko zekiten gizonak bazituan inguruan. Luis Arozena, Klaudio Anton Luzuriaga, Mateo Azkarate, Anaia, Iturriaga ta beste batzuek sarri biltzen ziran Lasala jaunaren etxean (4). Egiten zituzten batzarretan, bakoi-tzak bere iritzia agertu ondoren, ezdabaidak laister azaltzen zuten burua, ta bakoi-tzak bere usteari gogor eusten zion. Ondo

(3) Manterola: **Cancionero Basco.**

(4) Fermín Lasala: **Una agrupación bascongada de 1820 á 1850.** Tolosa, 1884.

dakian batek, Iturriaga zala gizon aien artean atsegin eta alaiena dio. Asko zekian, eta zekiana beti jolasean bezela ta arpegi alaia rekin esaten omen zuan; ez beste askok bezela arpegi illun eta itz zorrotzakin.

España'n idazten zana gogoz irakurtzen zuan Iturriaga'k, eta Frantziko idazleak ziotena ere bai.

Ainbeste ikasi ta alako lagunak zeuzkan gizonarentzat, Gipuzkoa'ko beste geiennen aurretik jartzea etzan gauza zalla izango, baña Iturriaga apala zan berez, buruan etzeukan arrokeririk. Bere alde zeuzkan gipuzkoar ezagutuenak, altsuenak, eta nai izan balu goiko malletara igoko zan errez. Baña Ernani'ko apaiz izatea zan bere naikunde beroena ta etzuan bere erriko eliza utzi izan nai.

1820'g. urtean, gipuzkoarrak Ekautari-ordeko izendatu zuten Iturriaga.

1839 ta 1840'g. urteak *Villafranke*'n igarozituan, uri artan Arkangoitz'eko Markes jaunak zuten *Chateau Larralde* zeritzaion etxean. Gero esango dedan bezela, uri artan idatzi zituan, eta idatzi ez bazituan zerbaiten herritu bai beintzat, bere *Ipuyak* eta beste neurtitz batzuek.

Berez atsegia, alaia, ta eskerrak egiteko beti gerturik zegoan gizona zan Iturriaga. Inguruetatik, eta urrutitik ere bai, sarri-sarri etortzen ziran apaizak beren eliz-itzal dietarako argitasunak Iturriaga'ri eskatzera, ta onek etzizkion beñere iñori ukatu.

1851'ko Epailla'ren 30'ean, Ernani'n, bere jaioterrian, il zan, 74 urte zituan orduan.

Mujika'ko Gregorio

"Ernani'ar ospetsuak," Donostia'n 1910

I

DIALOGOS BASCO - CASTELLANOS

para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa,

por D. A. P. I. P., Hernani, año de 1842

“DIALOGOS BASCO-CASTELLANOS”

Orrela izendatutako 86 orrialdedun liburutxo bat ere argitaratu zuan Ernani-n 1842-g. urtean.

Euskeraz ta gaztelarrez argitaratu zuan Iturriaga-k liburu au, baña gero, 1857-g. urtean, berriz azaldu-erazi zuan Bonaparte Lenenak Londres-en, Iturriaga-k egindakoaz gañera, onek esan zuana prantzitarren eta Bizkai, Lapurdi ta Zuberoa-koen euskeraz jarrita. Bizkai-ko euskeraz Uriarte Aitak ipifñi zuan; Lapurdi-koan Duvoisin-ek, eta Intxauspe-k Zubero-koan.

Baserritarrak eta nekazariak errez ikasi dezaten, galde-erantzupenetan idatzita dago Gogoz ta atsegin irakurtzen da.

Seda, anilla ta orrelakoak nondik datozen; erleak, errauleak, garaustikaiak, txingurriak eta beste aberetxoak nundik eta nola jaiotzen diran, zertako diran, zer egiten

duten, soroentzat, landarentzat onak ala txarrak diran; lur motak zenbat diran, zertan ezagutzen diran, eta bakoitzarentzat zimaurre aukerakoena nolakoa dan; abereai zer jaten eman bear zaieten eta nola sendatzen diran; baserritarrari alkarganatzeak dakartzkion ondasunak; guria ta gazta ongi egiteko ikasbideak; bei, idi, txerri, ardi, arku-me, ordots eta untxiak zenbat motakoak diran, jateko zer bear duten; olioia ta gatzanundik eta nola ateratzen diran; odoiak, oñazkarrak, txingorra, turmoiak, euriak, elurra, lur-ikarak, izotzak, sutokariak nola jaiotzen diran, eta beste gauza asko ta asko esaten dizkigu txukun eta polliki.

Mujika'ko Gregorio

“Ernaniar ospetsuak”. Donostia'n, 1910

PROLOGO

Es muy de extrañar que siendo el romance la lengua de nuestro gobierno, y estando los Señores mestros de primeras letras encargados de enseñárselo a sus discípulos, por sernos a los bascongados necesario e indispensable a unos, útil a otros y conveniente a todos, no se hayan proporcionado medios auxiliares que faciliten su enseñanza. Sin embargo, son estos tanto más necesarios cuanto que el genio del romance es diametralmente opuesto al del bascuence. Con la idea pues de ocurrir a esta necesidad, se han compuesto dos libritos titulados el uno "Arte de aprender a hablar la lengua castellana, para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa". Y el otro "Diálogos basco-castellanos, para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa". El primero viene a ser una gramática fraseológica, que contiene sobre setecientas frases familiares, y el segundo una colección de

diálogos basco-castellanos tan agradables como instructivos. Su lectura diaria los grabará bien pronto en la memoria de los chicos, y pondrá a estos en disposición de empezar a hablar en castellano sin la ridícula jerigonza a que dan origen la falta de voces y la diferencia de la sintáxis de una y otra lengua.

El precio de estos libritos no puede ser menor, estando reducido al coste del papel, de la impresión y de la encuadernación, que es el de dos reales de vellón cada uno.

LENDABIZIKO JOLASA

ANTONIO.—Basilio, lengo eguneko zure jolasak arras jostatu ninduen.

BASILIO.—Atsegin det jakitea.

A.—Naiko nuke zerbait esango bazendu sberetxo batzuen gañean.

B.—Ez da gauza gaitza atsegin ori zuri ematea.

A.—Txit asko estimatuko nizuke.

B.—Badakizu zirikoa edo seda zer dan?

A.—Ustez bai; ona emen.

CONVERSACION PRIMERA

ANTONIO.—Tu conversación del día pasado me divertió muchísimo.

BASILIO.—Me alegro de saberlo.

A.—Quisiera dijese algo sobre algunos animales.

B.—No es cosa difícil hacerte ese gusto.

A.—Te lo estimaría muy mucho.

B.—¿Sabes lo que es la seda?

A.—Al parecer sí; véla aquí.

B.—Baña, badakizu nondik datorren?

A.—Indietatik noski.

B.—Ez da Indietara joan bearrik zirikoa izateko.

A.—Nola! alderagoetik al dator?

B.—Emen bertan atzeman diteke. Inguma baten obra da zirikoa.

A.—Inguma baten obra! baditeke?

B.—Bai; inguma baten obra.

A.—Esan zadazu nola egiten duen obra eder ori.

B.—Bada inguma-mota bat zuria ta lodia. Onek egiten dituen arraultzetatik irteten dira ar guztiz txiki batzuek. Bereala asten di-

B.—Pero, ¿sabes de dónde viene?

A.—De las Indias sin duda.

B.—No hay necesidad de ir a las Indias para tener la seda.

A.—¡Cómo! ¿viene de más cerca?

B.—Aquí mismo se puede coger. Es obra de una mariposa la seda.

A.—¡Obra de una mariposa! ¿Es posible?

B.—Sí; obra de una mariposa.

A.—Dime cómo trabaja esa hermosa obra.

B.—Hay una especie de mariposa blanca y gorda. De los huevos que pone ésta, salen unos gusanos

ra masust-arbolen ostoa jaten. Jaten dijoa zen bezela dijoaz anditzen. Beatza bezin lodi egiten dira berrogei bat egunen barrenen. Orduan asten dira aotik botatzen lerdia armiarmak bezala. Botatzen dute arbolen arbastetan beren buruen jiran. Onela gelditzen dira lirdizko boltsa edo zorro baten barrenen. Boltsa edo zorro oni deritzayo kapulea. Kapuleak ifintzen dira ur irakiñean eta an beratzen dira. Artzen da izpi bat, eta dauden lekutik atera gabe dijoaz askatzen. Matazuran izpia artuaz, egiten da mataza, askatzen dijoan bezela.

A.—Nork esan ikusten diran sedazko jantzi ederrak zor zaizkala ingumari!

sumamente pequeños. Inmediatamente empiezan a comer la hoja de la morera. A medida que van comiendo van creciendo. Crecen tanto como un dedo a los cuarenta días. Entonces empiezan a arrojar baba de la boca como la araña. La arrojan en las fustas de los árboles alrededor de sí mismos. De esta manera se quedan dentro de una bolsa de baba. A esta bolsa se llama capullo. Los capullos se ponen en agua hervida, y allí se ablandan. Se coge un filamento, y sin sacarlos de donde están, se van soltando. Cogiendo el filamento en la aspa, se forma la madeja a medida que va soltándose.

A.—¡Quién dijera que los hermosos vestidos de seda que se ven son debidos a la mariposa!

B.—Kapulearen barrenen dauden arrak oso osoro ezkur-alea dirudite.

A.—Illak ala biziak daude?

B.—Illak gure begietan, baña uda berrian irteten dira kapuletik inguma biurturik.

A.—Ori gauzaren miragarria!

B.—Bi gauza oietatik zein deritzazu miragarriagoa? piztea ala inguma biurtzea?

A.—Ain arrigarria arkitzen det ar bat inguma biurtzea, non il bat piztea.

B.—Egiaz, arritzeko gauza da gaur lu-rean arrastaka dabillen arra, bigar egan len baño ederragoa ikustea. Onen bistan ez da

B.—Los gusanos que están dentro del capullo, se parecen enteramente a la bellota.

A.—¿Están muertos o vivos?

B.—Muertos a nuestros ojos, pero en la primavera salen del capullo convertidos en mariposas.

A.—¡Qué cosa tan admirable!

B.—¿De estas dos cosas cuál te parece más admirable, la resurrección o la conversión en mariposa?

A.—Tan admirable encuentro la conversión de un gusano en mariposa como la resurrección de un muerto.

B.—En verdad, es cosa admirable ver a un gusano, que hoy se arrastra por el suelo, volar mañana más hermoso que antes. En vista de esto no es

gaitz sinistea piztuko gerala gu ere egunen latean len baño ederragoak. Inguma berrí oiek egiten dituzte arraultzak eta bereala ilhen dira.

A.—Zer? orren denbora gutxian bizitzen dira?

B.—Bai, eta badira abereak oraindik gutxiago bizitzen diranak.

A.—Ori orrela bada, ez degu zer errenkuratu gure biziaren laburtasunaz.

BIGARREN JOLASA

B.—Gaur itzegin bear dizut erleen gafean.

A.—Aberetxo gai onak dira erleak; oiek ematen digute eztia.

difícil creer que resucitaremos también nosotros algún día más hermosos que antes. Estas nuevas mariposas ponen su huevos y luego se mueren.

A.—¿Qué? ¿viven tan poco tiempo?

B.—Sí, y hay animales que viven aún menos.

A.—Si eso es así, no tenemos que quejarnos de la cortedad de nuestra vida.

SEGUNDA CONVERSACION

B.—Hoy te tengo de hablar sobre las abejas.

A.—Animalitos útiles son las abejas, éstas nos dan la miel.

B.—Ez bakarrik ematen digute eztia, bai ere argizagia.

A.—Nola ezti zalea naizen txit, ez nintzan argizagiaz oroitzen.

B.—Jateko bezin ona da eztia eskaitako. Kostomia dan orduan artzen da eztia urarekin. Eruskiñak janarazten dute askotan bazkal aurrean gorputzetik libratzeko. Beste aldetik berriz zenbat gauzatarako ez da ona argizagia? Onekin egiten dira arkaia, ezkoztuak, eta enplasto-moet asko. Erleak jayotzen dira ingumak bezela, eta jaten dute eztia. Loreetan arkitzen dute eztiaren eta argizagiaren gaya. Lorearen iriñarekin egiten dute argizagia: eta eztia berriz

B.—No solamente nos dan miel, sino también cera.

A.—Como soy muy aficionado a la miel, no me acordaba de la cera.

A.—Tan buena es la miel para remedio, como para comida. Cuando hay catarro, se suele tomar miel con agua. Los médicos la hacen comer a veces antes de ponerse a la mesa para aligerar el vientre. Por otra parte, ¿para cuántas cosas no es buena la cera? Con ésta se hacen velas, encerados y varias especies de emplastos. Las abejas nacen como las mariposas y comen miel. En las flores encuentran la materia de la miel y cera. Con la harina de la flor hacen la cera, y la miel con el jugo que sacan del cáliz de la

loreari mimikotik ateratzen dioten ezadea-
rekin. Iriña biltzen dute lore gañean atze-
ko zankoak arrastaka erabilliaz. Zankoetan
dituzte zanko-zorro-mota batzuek. Eta ez
dira gelditzen oiek bete arteraño. Ezadea
txupatzen dute muturrean duten tronpa ba-
tekin. Ezadearentzat dute urdail bat, eta an
ezti biurtzen da. Iriñarentzat dute beste bat,
eta an argizagi biurtzen da. Gero aotik ar-
gizagia boteaz, dijoaz abaraska egiten.
Abaraska egiña dagoan orduan, betetzen di-
tuzte onen txuloak eztiz.

A.—Txuloari zeldilla al deritza?

B.—Abaraskarenari bai.

A.—Txoratzen naute ni gauza oiek guz-
tiak.

flor. La harina la recogen arrastrando las patas tra-
seras encima de la flor. Tienen en las patas una es-
pecie de polainas. Y no paran hasta llenar éstas. El
jugo lo chupan con una trompa que tienen en el
hocico. Para el jugo tienen un estómago y en él
se convierte en miel. Para la harina tienen otro y en
él se convierte en cera. Después, a medida que van
arrojando cera por la boca, van haciendo el panal.
Cuando está hecho ya el panal, llenan de miel sus
celdillas.

A.—¿Se llama celdilla al agujero?

B.—Al del panal sí.

A.—Me vuelven loco a mí todas estas cosas.

B.—Ez dezu zertaz txoratu.

A.—Zer! Ez da txoratzeko gauza, lorearen gañean dagoan iriña argizagi biurtua ikustea?

B.—Eta ez zaitu txoro biurtzen ikusteak gure odol biurtzen guk jaten ditugun gauzak?

A.—Egia diozu, ez nintzan kontuan erortzen.

B.—Gaur beiak jan duen belarra, biar esne biurtua jaten degu.

IRUGARREN JOLASA

B.—Errauleaz itzezin bear degu gaur.

A.—Zuk nai dezun bezala.

B.—No tienen por qué volverte loco.

A.—¡Qué! ¿No es cosa de volver loco a uno ver la harina que está sobre la hoja de la flor convertida en cera?

B.—¿Y no te vuelve loco el ver convertirse en nuestra sangre las cosas que nosotros comemos?

A.—Dices la verdad, no caía en cuenta.

B.—La hierba que hoy ha comido la vaca, mañana la comemos convertida en leche.

TERCERA CONVERSACION

B.—Hoy hemos de hablar de la cantárida.

A.—Como tú quieras.

B.—Erraulea da euli me, luze, berdaisa bat. Lizardietan arkitzen dira, zeren an utzi oi dituzte beren arraultzak.

A.—Orrek esan nai du, errauleen arrak lizarren ostoa jaten dutela.

B.—Bai, ingumen arrak masust-arbolen ostoa bezala. Baña jakin beazu, edozein inguma, ez edozein arbolen ostoa, ez dirala onak seda emateko. Euli onekin egiten da lokeria.

A.—Eriai ifintzen zaiotena?

B.—Bai, uraxe bera. Eritasunik geienetan ori izaten da azkeneko sendagaya. Eza-biziak dituztenentzat da guztiz ona.

B.—La cantárida es una mosca delgada, larga, de color verde alegre. Se encuentra en los fresnales, porque allí depositan sus huevos.

A.—Eso quiere decir que los gusanos de las cantáridas comen la hoja del fresno.

B.—Sí, como los gusanos de las mariposas la hoja de la morera. Pero has de saber que ni cualquiera mariposa, ni cualquiera hoja de árbol, son a propósito para que produzcan la seda. Con esta mosca se hace el parche.

A.—¿El que se aplica a los enfermos?

B.—Sí, el mismo. En la mayor parte de las enfermedades ése suele ser el último remedio. Para los que padecen de humores es sobre todo bueno.

A.—Eta nolatan ematen da sendaki au?

B.—Auts egiñik; eta begira nola: errau-leak bildu ondoren uzten dira iltzen eta idortzen, eta idortu ondoren jotzen dira almerizean edo motraiduan. Auts onekin egiten dan enplastoak erre eta maskulluak azeratzen ditu. Zenbatek ez diote euli oiea zor osasuna! eta zenbatek bizia!

A.—Eta esango dirazu ez dirala oiek bat txoratzeko gauzak?

LAUGARREN JOLASA

B.—Ona non dezun aberetxo bat zuk eza gutzen ez dezuna.

A.—Emen atzeman dezu?

A.—Y ¿cómo se aplica este medicamento?

B.—Reducido a polvo, y ve aquí cómo. Después de haber recogido las cantáridas, se les deja morir y secar, y después que se han secado se les pulveriza en un almirez o mortero. El emplasto que se hace con este polvo, quema y levanta ampollas. ¡Cuántos no deben a estas moscas la salud! ¡y cuántos la vida!

A.—¿Y me dirás que estas cosas no son para volver loco a uno?

CUARTA CONVERSACION

B.—Aquí tienes un animalito que tú no conoces.

A.—¿Le has cogido aquí?

B.—Ez, Ameriketan sortzen da, eta andik ekartzen dute ganbusia egiteko. Garaustikaya deitzen diote.

A.—Bizkitartean garaustikaya gorria da, eta aberetxo ori auts kolorekoa.

B.—Atorraina ere berdea da berez, baña egostean gorritzen da. Ozpiñ txorta bat botatzen badiozu, ikusiko dezu nola gorrituko dan.

A.—Orren zanpatu-biribilla da; dilista di rudi. Muturra txerriarena bezelakoa du.

B.—Argatik deitzen diote erderaz txerri-txoa. Bada beste ar bat onen antzekoa, ezakotxa deritzana. Baña ark ematen duen ganbusia ez da aiñ omanea. Ala bata nola bes-

B.—No, se cría en las Américas, y de allí lo traen para hacer tinte. Le llaman grana.

A.—Entretanto la grana es roja, y ese animalito de color de ceniza.

B.—La langosta es también verde por sí, pero se pone roja cuando se cuece. Si le echas un poco de vinagre, verás cómo se pondrá rojo.

A.—¡Qué chati-redonda es! Parece lenteja. El hocico lo tiene parecido al del cochino.

B.—Por eso le llaman en castellano cochinilla. Hay otro gusano parecido a éste, que se llama quermes. Pero el tinte que da aquél, no es tan fino. Así el uno como el otro, se encuentran en los árboles. Porque

tea, arboletan arkitzen dira. Zeren beren amak arbolen ostotetan ezartzen dituzte beren arraultzak. Oietatik irteten dira arrak eta egiten dituzte zibotak, beren barrenen gelditzen dirala. Bada beste ganbusi gorri bat oraindik askoz ederragoa. Suteoa deitzen zayo, baña ain da bakana non txit gutxik izan oi dute. Maskor baten barrenen arkitzen da eta txakur bati zor zaio.

A.—Zer! txakur bati? nola izan zan ori?

B.—Txakur bat oi zebillen goseak illik. Goseak eraman zuen ondarrera eta asi zan maskor jaten. Egun oro joaten zan bere gosea iltzera. Biurtzen zan bere muturra guztia gorritua zuela. Norbaitek odola zalako, eta zauriren bat zuelako, eldu zion. Ikus:

sus madres ponen sus huevos en las hojas de los árboles. De ellos salen gusanos y hacen agallas, quedándose dentro de ellas. Hay otro tinte rojo, todavía más hermoso. Se llama púrpura, pero es tan raro que muy pocos la suelen tener. Se encuentra dentro de una concha, y se le debe a un perro.

A.—¡Qué! ¿A un perro? ¿Cómo fue eso?

B.—Un perro solía andar muerto de hambre. El hambre le llevó al arenal y empezó a comer conchas. Solía ir todos los días a matar su hambre. Volvía con su hocico todo rojo. Alguno, creyendo que era sangre y que tenía alguna herida, le agarró. Vio

zuen ganbusia zala odola zirudiena. Eta orra nola arkitu zan ganbusietan zan ederrena eta garestiena.

A.—Bai, garestia bear du izan, zeren maskor asko bildu bearko da soñeko bai ganbusitzeko.

B.—Ain da garestia non erregeak eta beste gaiñ-gañeko personak bakarrik izan dezateke. Orobat gertatzen da altistearekin. Maskorraren barrenen arkitzen da itxasoan. Orra non munduan diran gauzarik baliosoenak zor zaizkaten animalitxo batzuei.

A.—Bai egiazki; nork esango luke errege eta erregeñen apainduriak oiei zor zaizkabela.

que era tinte lo que parecía sangre. Y he aquí cómo se descubrió el más hermoso de los tintes y el más caro.

A.—Sí, debe ser caro, porque será menester recoger mucha concha para teñir un vestido.

B.—Es tan caro que sólo los reyes y algunos magnates pueden tenerlo. Lo propio sucede con la perla. Se encuentra dentro de una concha en la mar. He ahí cómo las cosas más preciosas del mundo son debidas a unos animalitos.

A.—Sí por cierto; ¡quién dijera que los adornos de los reyes y reinas se les deben a éstos!

B.—Orobat gertatzen da elizako ornamenteakin.

BOSGARREN JOLASA

B.—Gauzarik txikienetan ikusten da ongiena Jainkoaren anditasuna. Badakizu noski zer dan zigarra? Askotan sortzen zaie aurrari beatz tartean.

A.—Baita ere negar gogotik eragiten gaitxoai!

B.—Amak atera oi diote eguzkitan orraz-musuarekin.

A.—Ikuste ona bear da eguzkitan ateratzeko ere.

B.—Lo propio sucede con los ornamentos de las iglesias.

QUINTA CONVERSACION

B.—En las cosas más pequeñas es donde mejor se ve la grandeza de Dios. Sabes sin duda lo que es el arador. Frecuentemente se le cría a los niños entre los dedos.

A.—¡También les hace llorar de gana a los pobres!

B.—Sus madres se lo suelen sacar al sol con la punta del alfiler.

A.—Buena vista es menester para sacárselo aun al sol.

B.—Bada, dan bezin txikia izanik, baditu zigarrak gorputzaren parte guztiak. Baditu ortzak, edo ortzen ordekoak, aurrai negar eragiten dien ezkerro; baditu urdalla, esteak, sabela, biotza, birrikak; bear ditu ere izan gibela, barea eta giltzurriñak. Aren odolak bear du ibilli gureak bezala gorputz guztitik.

A.—Ez dirudi bada odolik duenik.

B.—Odola txuria duelako, beste asko aberetxok bezela.

A.—Ongi diozu gauzarik txikienetan dala andiena Jaungoikoa.

B.—Badira aberetxoak zigarra baño ere oraindik txikiagoak.

B.—Pues, siendo tan pequeño como es, tiene el arador todas las partes del cuerpo. Tiene dientes, o cosa equivalente, ya que hace llorar a los niños; tiene estómago, intestinos, vientre, corazón, livianos; debe tener también hígado, bazo y riñones. Su sangre debe andar como la nuestra por todo el cuerpo.

A.—Pues no parece que tenga sangre.

B.—Porque tiene sangre blanca como otros muchos animalitos.

A.—Bien dices que en las cosas más pequeñas es más grande Dios.

B.—Hay animalitos aún más pequeños que el arador.

SEIGARREN JOLASA

B.—Arritu ziñan joan dan egunean zenbat on aberetxo batzuei zor diotegun ikus-tean. Zirikoa inguma bati, ganbusirik ede-rrena eta altisteak maixkor batzuei. Bada oraindika arrigarriagoa da aberetxo batzuek erakusten digutena, ematen digutena baño. Erleak goizetik arratsera ari dira lanean gel-ditu gabetanik. Ez dute jaten egunean egu-neko anoa baizik. Badakite negua etorriko dala eta orduan ezin irtengo dirala beren eultzetik. Onela erakusten digute lan egiten al degunean, ezin (5) deguneko; eta degu-

SEXTA CONVERSACION

B.—Te admiraste el día pasado al ver cuántos be-neficios debemos a unos animalitos. La seda a una mariposa, y el mejor tinte y las perlas a unas con-chas. Pues más admirable es todavía lo que nos en-señan agunos animalitos, que lo que nos dan. Las abejas desde la mañana hasta la noche andan tra-bajando sin cesar. No comen sino su ración diaria. Saben que vendrá el invierno, y entonces no podrán salir de su colmena. Así nos enseñan a trabajar, cuando podemos, para cuando no podamos; y a

(5) "Ezin" au ez dago euskerazko zatian; ba-ñan ongi antzematen zaio emen "ezin" bear dua-la; erderazko zatian ere "para cuando no poda-mos" esaten baita; orregatik "ezin" ori erantsi diogu, falta bada ere moldiztegiaren utsegiñen bat izango dalakoan.

nean, gordetzen, ez deguneko. Itz batean erakusten digute iangilleak eta kontuzkoak izaten. Lanegitetik eta zurra izatetik datoz aberastasuna eta ongi izatea. Lana da birtute guztien ama, eta alferkeria gaitz guztiena. Guk guztiok egingo bagendu erleak egi-ten dutena, aingeruak bezela biziko giñake.

ZAZPIGARREN JOLASA

A.—Naiko nuke, Basilio, zerbait jakin txingurrien gañean.

B.—Asko txingurri-mueta dira, batzuek txikiagoak besteak baño. Negu guztia lotan igarotzen dute.

A.—Nola iltzen ez dira?

guardar, cuando tenemos, para cuando no tenemos. En una palabra, nos enseñan a ser laboriosos y económicos. Del trabajo y de la economía viene la riqueza y el bienestar. El trabajo es la madre de todas las virtudes, y la haraganería la de todos los vicios. Si todos nosotros hiciéramos lo que hacen las abejas, viviríamos como unos ángeles.

SEPTIMA CONVERSACION

A.—Quisiera, Basilio, saber algo de las hormigas.

B.—Hay muchas especies de hormigas, unas son más pequeñas que las otras. Todas el invierno lo pasan dormidas.

A.—¿Cómo no mueren?

B.—Beren gizentasunak iraun-azotzen die. Au berau gertatzen da sugearekin, musarrarekin eta beste asko animalirekin. Zenbat bider, eri gaudenean, ez gera egoten gerok ere illabete osoetan ezer artu gabe. Txingurrien artean batzuek dira arrak, besteak emeak, eta besteak ez arrak eta ez emeak. Arrak eta emeak dira umeak aitzeko, eta besteak lanerako. Orobat gertatzen da erleakin. Luma gabeko egoak dituzten animalitxoak jayo eta azitzen dira ingumak bezala.

A.—Eta txingurriak?

B.—Orobat.

A.—Bizkitartean txingurriak ez dute ego-rik.

B.—Su propia gordura los mantiene. Esto mismo sucede con las culebras, marmotas y otros muchos animales. ¡Cuántas veces, cuando nos hallamos enfermos, no nos estamos nosotros mismos meses enteros sin tomar nada! Entre las hormigas las unas son machos, las otras hembras, y las otras ni machos ni hembras. Los machos y las hembras son para criar, y las otras para trabajar. Lo propio sucede con las abejas. Los animalitos con alas y sin plumas nacen y crecen como las mariposas.

A.—¿Y las hormigas?

B.—Lo mismo.

A.—Entretanto las hormigas no tienen alas.

B.—Bai, badituzte jayotzen diranean, baña gero atzeko bi zankoakin kentzen dituzte. Badakizu bein baño geyagotan etxeak hota dituztela? Ez farrik egin; esatera noakizu nola. Adrilluzko etxeak diran tokietan jan-gauzarik barrenean senti badute, ara zer egiten duten: adrilluen arteko naskarilla edo morteroa txeatzen dute barrenen sartzeko. Badator berriz aizete bat eta botatzen du etxea. Badira animalitxoak beren arraultzak itintzen dituztenak frutaren gañean. Aieta-tik irteten diran arrak, sartzen dira barrena eta jaten dute. Au berau gertatzen da arbol-en ostoakin, gariarekin eta arroparekin.

A.—Argatik ikusten dira arbol-en ostoak sare bat egiñik.

B.—Sí, las tienen cuando nacen, pero se las quitan después con las dos patas traseras. ¿Sabes que más de una vez han derribado casas? No te rías; te lo voy a decir cómo. En parajes en que las casas son de ladrillo, si huelen dentro algún comestible, he aquí lo que hacen: desmenuzan el mortero que está entre ladrillos para poder entrar dentro. Viene después un ventarrón y derriba la casa. Hay animalitos que ponen sus huevos sobre la fruta. Los gusanos que de ellos salen, entran en su interior y se lo comen. Esto mismo sucede con las hojas de los árboles, con el trigo y con la ropa.

A.—Por eso se ven hojas de árboles hechas redes.

B.—Eta zenbat kalte ez dute egiten gari-alean!

A.—Gari-pillaren gañean egan ikusten diran eltxoen arraultzetatik irtengo dira noski an arrak?

B.—Bai eta sartzen dira gari-alean barrenen, frutan bezala. Badira euliak zaldi eta beste animaliai sudurretik eta beste lekuetatik sartzen zaiozkatena.

A.—Eta barrenen uzten dizkate arraultzak?

B.—Bai, eta aietatik irteten diran arrak zora-azitzen die askotan. Atza, ezkabia eta beste asko miñ, arrak besterik ez dira.

B.—Y ¡cuánto daño no hacen en el grano de trigo!

A.—¿De las palomillas o mariposillas que se ven volar sobre el montón de trigo saldrán sin duda los gusanos allí?

B.—Sí, y entran dentro del grano como en la fruta. Hay moscas que se les meten a los caballos y otros animales por las narices y otras partes.

A.—¿Y les dejan dentro los huevos?

B.—Sí, y los gusanos que de ellos salen, los ponen locos a veces. La sarna, la tiña y otras muchas enfermedades, no son sino gusanos.

A.—Bizkitartean zikinkeriatik datozela esaten dute.

B.—Bai, zeren zikinkerian sortzen dira. Argatik bear dira garbitu egun oro musua eia eskuak. Bear da ere orrazatu egun oro. Abereak ematen dute garbitasunaren ejemploa. Ikusiko dezu beti beren buruak garbitzen ari dirala.

A.—Txerriak beintzat ez.

B.—Baita txerriak ere; bestela ez da aien eyai begiratzea baizik. An daukate beren etzauntza zillarra baño garbiago. Jainkoak eman die abereai ezaguera au, zeren garbitasuna guztiz bearra dan osasunarako.

A.—Entretanto se dice que vienen de la suciedad.

B.—Sí, porque se crían en la porquería. Por esto es menester lavar todos los días la cara y las manos. Es menester también peinarse todos los días. Los animales nos dan ejemplo de limpieza. Verás que siempre se están limpiando.

A.—A lo menos los cerdos no.

B.—También los cerdos; si no, no hay más que mirar a su pocilga. Allí tienen su cama más limpia que la plata. Dios les ha dado ese instinto, porque la limpieza es muy necesaria para la salud.

ZORTZIGARREN JOLASA

A.—Gure azkeneko jolasean pentsatzen egondu naiz, joan dan arrats guztian.

B.—Nola bada! Zerk arritu zaitu?

A.—Atza, ezkabia eta beste gaitz asko zikintasunetik datozela aditzeak.

B.—Atza eta ezkabia ez dira ar-mueta batzuek besterik. Orobat diot ortz eta agiñetan sortzen dan zikinkeriaz. Ar oiek zultzen dituzte geienetan batzuek eta besteak.

A.—Eta nondik datoz aurrak izaten dituzten txitxareak?

B.—Janari eta edariarekin iretsitzen di-

OCTAVA CONVERSACION

A.—He estado pensando en nuestra última conversación durante toda la noche pasada.

B.—¡Pues cómo! ¿Qué es lo que te ha admirado?

A.—El oír que la sarna, la tiña y otros muchos males vienen de la suciedad.

B.—La sarna y la tiña no son más que una especie de gusanos. Lo propio digo de la porquería que se cría en los dientes y en las muelas. Estos gusanos son los que agujerean las más veces los unos y las otras.

A.—Y ¿de dónde vienen las lombrices que los niños suelen tener?

B.—De los huevos que tragan con la comida y

tuzten arraultzetatik. Eltxo pozoitsuak da-
toz berriz ur usteletik. Orobat sugeak, su-
rangillak eta beste sugarrastak. Eta zenbat
gaitz ez datoz putzu eta zingiretatik! Pu-
tzuak nai du itzala, ura usteltzea nai ez ba-
da. Eta botatzen bazayo ikatza edo iduriya,
garbitzen da ura edan ditekean moduan.
Baita ere ona da txit arkoska botatzea.

A.—Ikusten det zikiñetik eta usteltasune-
tik datozela gauza nazkagarriak eta gaitz
asko.

BEDERATZIGARREN JOLASA

A.—Esan zadazu, Basilio: zer da anilla?

bebida. Por otra parte los mosquitos venenosos vie-
nen de la agua corrompida. Lo mismo las culebras,
sabandijas y otras serpientes. Y ¡cuántas enferme-
dades no vienen de pozos y lagunas! El pozo quiere
sombra, si no se quiere que el agua se corrompa.
Y si se le echa carbón o cisco, se purifica el agua
de modo que se puede beber. También es muy bueno
echar cascajo.

A.—Veo que de la suciedad y corrupción vienen
cosas asquerosas y muchas enfermedades.

NOVENA CONVERSACION

A.—Dime, Basilio, ¿qué viene a ser el añil?

B.—Iñastorra dirudien landare bati kentzen zaion auts bat.

A.—Eta liñabera edo algodoya, kina, kanela eta klabilloa nondik datoz?

B.—Indietatik datoz. Liñabera edo algodoya arbol txiki baten koskoan arkitzen da, gaztaña morkotsean bezala. Kina, arbola baten azala da; kanela, orobat, eta klabilloa beste arbola baten frutua. Azukrea, berriz, da kañabera-moet bati txikitu, egosi eta kentzen zaion zumoa edo ezadea. Gauza oiek guztiak toki beroetan etortzen dira.

A.—Zori onekoak bear dute izan orrelako tokiak.

B.—Badira tokiak beti uda berrian bizi

B.—Un polvo que se saca de una planta parecida al helecho.

A.—Y ¿de dónde vienen el algodón, la quina, la canela y el clavillo?

B.—Vienen de las Indias. El algodón se encuentra en la caja o cáscara de un arbusto, como la castaña en el erizo; la quina es la corteza de un árbol; la canera lo mismo, y el clavillo es fruta de otro árbol. Y el azúcar es el zumo que se saca de una especie de caña desmenuzada y cocida. Todas estas cosas vienen en países cálidos.

A.—Deben ser felices en semejantes países.

B.—Hay países donde se vive en una continua

diranak. Onelako tokietan ikusten dira arbola batean eta denbora berean lorea, fruitu edo alorta berdea eta eldua. Berenez etortzen dira naranjak, limoyak eta beste alort edo frutua.

A.—Zori onekoak alako tokietan bizi diranak! Bizi ditezke ezeren kuidadorik gabe.

A.—Bizkitartean an ere lan eginda bizi da jendea. Jan utsarekin ezin bizi gindezke.

A.—Zergatik ez, otzik eta bero aundirik egiten ez badu beintzat?

B.—Gizon basatiak ala bizi dira. Jakin beazu jantziaren faltan txerrien gisa jira-biraka loyean ibiltzen dirala asko tokitan.

primavera. En países semejantes se ven en un mismo árbol y a un mismo tiempo la flor, la fruta verde y la madura. Vienen de por sí la naranja, el limón y otras frutas.

A.—¡Felices de los que viven en semejantes países! Bien pueden vivir sin cuidado ninguno.

B.—Entretanto, aun allí vive la gente trabajando. No podemos vivir con sólo la comida.

A.—¿Por qué no, si a lo menos no hace mucho frío ni mucho calor?

B.—Los salvajes viven así. Has de saber que en muchas partes a falta de vestido se revuelcan en

Eltxo pozoidunak eta beste arbiska pozoitsu askok zulatzen dituztelako egiten dute au.

AMARGARREN JOLASA

B.—Gaur nekazaritzaren gañean jardur bear degu.

A.—Ez da gaizki igaroa izango denbora, zeren ori da gure egintza.

B.—Lur-mueta asko dira, baña guztiak bitara biurtzen dira.

Presnan ifintzen da eta estutzen da.

Berritan olio au da onenetakoa, ala gordi-
ñik nola eltzerako.

Baña ez zayo zartzen utzi bear laster gal-
tzen dalako.

Argatik egin bear da maiz berritan ja-
teko.

Gelditzen dan patsa uriztatzen da eta be-
rriz presnan ezartzen da.

Orobat egiten da irugarren aldian.

Bigarren ta irugarren aldian ateratzen
dan olioa, ona da erregositzeko eta argita-
rako.

Se envuelve en un tejido de cerda doble.

Se pone en la prensa y se exprime.

En fresco este aceite es el mejor, tanto para co-
merlo crudo como para la olla.

Pero no es menester dejarle envejecer porque se
pierde pronto.

Por eso es menester hacerlo a menudo para co-
merlo fresco.

El orujo que queda, se rocía y se vuelve a poner
en la prensa.

Se hace otro tanto por tercera vez.

El aceite que se saca la segunda vez es bueno pa-
ra freir y para el alumbrado.

Pagoaren ezkurak, urrak eta aziyak, ur epeletan beratu bear dute.

Eta barrengo azala kendu ondorean zeatzen dira motraiduan.

Biltzen da eta egiten da orre gisako ogibat.

Eta ifintzen da berotzen auts beroaren gainean lur-konketa batean.

Gero ezartzen da presan eun zurdan bildurik.

Pago-ekurraren olioia da guztiz ona ala gordiñik jateko nola eltzerako eta errago-sitzeko.

Baña bear ditu bi edo iru urte gutxienaz ondutzeko.

La bellota de haya, la avellana y las simientes se han de remojar en agua tibia.

Y después de haberlas pelado se machacan en el mortero.

Se recoge y se amasa formando entre las manos una especie de pan.

Y se pone a calentar sobre ceniza caliente en una aljofaina.

Se pone después en la prensa envuelto en el tejido de cerda.

El aceite de la bellota de haya es muy bueno así para comerlo crudo como para la olla y para el sartén.

Pero necesita dos o tres años lo menos para que se bonifique.

Eta onetarako ifintzen da lurrean lur-konketan edo lur-murkoetan.

Lakari bakoitzak ematen du pitxarra t'erdia olio.

Urraren olioa ez da ain ona argitarako ez bada.

Indietako gaztañaren ura txit ona da arropa garbitzeko.

Bi gaztaña asko dira pitxerdi bat uren-tzat.

Mamia bear da txuritu, erazaldu eta ur heroan iduki ogei eta lau orduan.

Nastu bear da noizik bein, gero lauspea-tzen utzi eta iragazi.

Ur onekin jaboatzen da ederki zapia.

Y para ello se pone en la tierra en alcofaina o en las botellas de barro.

Cada celemín da azumbre y media de aceite.

El aceite de avellana no es tan bueno si no es para alumbrado.

El agua de la castaña de Indias es muy buena para limpiar la ropa.

Bastan dos castañas para media azumbre de agua.

Se ha de pelar la carne, rasparla y tenerla en agua caliente en veinte y cuatro horas.

Se ha de revolver de vez en cuando, dejarlo reposar y colarlo.

Con esta agua se lava hermosamente la ropa.

OGEI TA BIGARREN JOLASA

B.—Gaur beste jolas-mota bat egin bear degu, Antonio.

A.—Nai dezun bezela, Basilio, zeren zure jolasa, dana dala, beti izango da otzana.

B.—Badakizu odehyak nola sortzen diran?

A.—Askotan ikusten ditut irteten erreka edo ibaietatik, besteetan lur bustitik, geyagotan eta geyago oraindik itxasotik.

B.—Zerk aterazitzen ditu onela?

A.—Eguzkiaren berotasunak, nere ustez.

B.—Ala da, eta odehyak dira, dakizun bezela, euri biurtzen diranak.

VIGESIMA SEGUNDA CONVERSACION

B.—Hoy hemos de hacer otra especie de conversación, Antonio.

A.—Como tú quieras, Basilio, porque, sea la que fuere, tu conversación será siempre agradable.

B.—¿Sabes cómo se forman las nubes?

A.—Muchas veces las veo salir de las regatas y ríos, otras veces de la tierra húmeda, y en mayor parte del mar.

B.—¿Qué es lo que las hace salir así?

A.—El calor del sol, a mi parecer.

B.—Así es, y las nubes son, como tú sabes, las que se convierten en lluvia.

Euritik sortzen dira iturriak eta errekek, eta oietatik ibayak.

Ibaitik dijoaz itxasora, berriz denborarekin odei biurtzeko.

A.—Beraz, orrela beti jiraka-biraka dabil-tza itxasoko urak kurpilla bezala.

B.—Dударик gabe, eta au bera gertatzen da eguzkiarekin diotenez.

Egizu kontu eguzkia dala argizko itxaso bat.

Andik irteten dan argia berriz ara biurtzen bada itxasoko ura bezela, erraz da orduan kargu egiten nola itxasoa eta eguzkia beti estadu batean dauden.

De la lluvia se forman las fuentes y las regatas, y de éstas los ríos.

De los ríos van al mar para convertirse en nubes con el tiempo.

A.—Según eso, siempre andan dando vueltas las aguas del mar como rueda.

B.—Sin duda, y lo propio sucede con el sol, según dicen.

Figúrate que el sol es un mar de luz.

Si la luz que de allí sale, vuelve otra vez allá como el agua del mar, fácil es entonces hacerse cargo cómo el mar y el sol están siempre en el mismo estado.

Lurraren azpian arkitzen dira gauza-mota guztiyak.

Eta beroarekin igotzen dira baporeen artean.

Bapore oyetatik datoz tximistak eta turmoyak.

A.—Egiazki arrigarrizko gauzak dira esaten dizkidazunak.

Zer gauza-mota dira beroak lurretik igorarazten dituen oiek?

B.—Beste askoren artean gatzua eta sulfrea, zeñakin egiten da sutautsa.

A.—Ez dakit gatzua zer dan.

B.—Gatzua da gatz-mota bat.

Dentro de la tierra se encuentran toda especie de cosas.

Y con el calor suben entre los vapores.

De estos vapores vienen los relámpagos y truenos.

A.—En verdad que son admirables las cosas que me dices.

¿Qué cosas son ésas que el calor hace subir de la tierra?

B.—Entre otras muchas, el nitro y el azufre, con que se hace la pólvora.

A.—No sé lo que es el nitro.

B.—El nitro es una especie de sal.

Eta badakizu gatza non arkitzen dan?

A.—Lotsagarrizko gauza da, baña aitortu bear det ez dakidala.

B.—Gatza arkitzen da arriaren gisa lurraren gañean eta azpian.

Arkitzen da urarekin nastua iturrietan eta itxasoan.

Lurraren gañean arkitzen danari deritza gatz arria.

Au ateratzen da arrobotik arria bezela.

Iturrietatik eta itxasotik ateratzen da ura berotu edo irakinda.

Luzaro berotu eta uzten da oztutzen, eta gatza gelditzen da ondoan.

¿Y sabes dónde se encuentra la sal?

A.—Es cosa vergonzosa, pero es menester que confiese que no lo sé.

B.—La sal se encuentra en forma de piedra sobre la tierra y debajo.

Se encuentra en las fuentes y en la mar mezclada con agua.

A la que se encuentra sobre la tierra, se llama sal gema.

Esta se saca como la piedra de la cantera.

La de las fuentes y de la mar se saca calentando o haciendo hervir al agua.

Después de haberla calentado largo rato se deja enfriar, y la sal se queda en el fondo.

Toki beroetan, marea goran uzten dute sartzen ura zelai zabaletan.

Itxitzen dituzte atakidak eta uzten dute eguzkiak egin dezan suak egiten duena.

Gelditzen da gero zelaya elurra egin bala bezin zuri gatzarekin.

Gatza lurpean dagoan lekuetan, egiten dituzte zuloak, eta eramaten dute erreka bat urez betetzeko.

Ura gazitzen da, ateratzen dute, eta edo suarekin berotzen dute edo larrañetan eguzkitan.

Jakiña da eguzkiaren bitartez egiten dan gatza askoz merkeago ateratzen dala.

En países cálidos dejan entrar con la marea el agua en campo llano.

Cierran las compuertas y dejan que el sol haga lo que hace el fuego.

El campo queda después blanco de sal como si hubiese nevado.

Donde la sal se encuentra debajo de tierra, abren pozos y llevan una regata allá para llenarlo de agua.

El agua se sala, se saca o la calientan al fuego o en eras al sol.

Sabido es que la sal que se hace por medio del sol, sale mucho más barata.

OGEI TA IRUGARREN JOLASA

B.—Badakizu zer abarrotsa egiten duen surtan gatzak.

Bada sutautsa ez da gatza baizik.

A.—Bizkitartean gatza zuria da eta sutautsa beltza.

Nai nuke jakin zerekin egiten duten sutautsa.

B.—Esatera noakizu.

Gatzua lurrarekin nastua arkitzen da eta egiten da lixiba lur onekin.

A.—Baña nola egiten da lixiba?

B.—Ifintzen da lurra edo errautsa saski batean, botatzen zayo ur goritua, eta onek urtu eta eramaten du berekin gatzua.

VIGESIMA TERCERA CONVERSACION

B.—Ya sabes qué ruido hace la sal al fuego.

Pues la pólvora no es más que sal.

A.—Entretanto la sal es blanca y la pólvora negra.

Quisiera saber con qué hacen la pólvora.

B.—Te lo voy a decir.

El nitro se halla mezclado con la tierra y se hace lejía con esta tierra.

A.—Pero, ¿cómo se hace la lejía?

B.—Se pone la tierra o ceniza en una cesta, se le echa agua hervida, y ésta derrite y lleva consigo el nitro.

Ur oni deritza lixiba, eta oztutzen danean gelditzen da ondoan gatzua.

Zenbat eta ur oni geyagotan irakin arazi-tzen zayon, anbat eta gatzuak indar geyago izaten du.

Baña geyago kostako da, irakite bakoi-tzean ur berria bear duelako.

Ez da dudarik, beti gatzua urritzen dijoa, eta su geyago bear du.

Argatik gatzuak, zenbat fiñagoa dan, anbat eta geyago balio du.

Gatzuari botatzen zayo sofre piska bai motraidura eta jotzen da orre egin arte.

A esta agua se llama lejía, y cuando se enfría, se queda en el fondo el nitro.

Cuanto más veces se le haga hervir al agua, tanta más fuerza tendrá el nitro.

Pero costará más, porque en cada hervor es menester echarle agua limpia.

No hay duda, porque cada vez va disminuyéndose más la cantidad del nitro, y necesita más fuego.

Por eso el nitro, cuanto más fino sea, vale más.

Al nitro se le echa un poco de azufre al mortero, y se machaca hasta que quede hecha una masa.

Gero botatzen zayo ikatz-ats piska bat eta jotzen da berriz luzaro.

Azkenik iralkitzen da zurda-bai batean eta gelditzen da sutauts egiñik.

Orain endeglatuko dezu nola sortzen diran iyurzuriak, tximistak eta turmoyak.

Kemearra edo baoakin igotzen dira lurretik eta itxasotik gatza, sufrea eta beste gauz asko.

Oyek guztiyak nastutzen dira elkarrekin eta artzen dute su.

Orra zer dan iyurzuria; ez da beraz mirari egin oi dituen zutigoak egitea.

A.—Orrek esan nai du iyurzuri bakoitza sutunpada bat dala.

Después se le echa un poco de carbón en polvo y se machaca otra vez largo rato.

Ultimamente se cierne en un cedazo de cerdas y queda hecha la pólvora.

Ahora comprenderás cómo se forman los rayos, relámpagos y truenos.

Con los vapores suben de la tierra y del mar sal, azufre y otras muchas cosas.

Todas éstas se mezclan entre sí y se encienden.

Ve ahí lo que viene a ser el rayo; no es, pues, de admirar haga los destrozos que suele hacer.

A.—Eso quiere decir que cada rayo es un cañonazo.

B.—Ala da.

Badakizu izotza ur gogortua besterik ez dala.

Orobat dira txingorra, elurra eta gatza.

A.—Bizkitartean diferenteak dirudite barta besterengandik.

B.—Bai, zeren beste zerbait gauzarekin nastuak dauden.

A.—Eta lur-ikara zer da? edo zertatik dator?

B.—Ori da gauza jakiña, jakitearekin lurra dagoala gatzez, sufrez eta beste onelako gauzez betea.

A.—Orrek esan nai du lur-ikara lurpeko iyurzuriak egiten duela.

B.—Es así.

Ya sabes que el hielo no es más que agua endurecida.

Lo propio son el granizo, la nieve y la sal.

A.—Entretanto parecen diferentes unos de otros.

B.—Sí, porque están mezclados con alguna otra cosa.

A.—Y ¿qué es terremoto? o ¿de qué proviene?

B.—Esa es cosa sabida con saber que la tierra está llena de sal, azufre y otras cosas semejantes.

A.—Eso quiere decir que el terremoto es efecto del rayo subterráneo.

B.—Baita ere sutokariak. Sutokaria deritza sua botatzen duen mendiari.

A.—Kalte aundiak etortzen bide dira lur-ikaretatik eta sutokarietatik.

B.—Iriak lurreratzerañokoak eta lurpean sartzerañokoak.

Lurpean ura gatza dagoan tokitik igarotzen bada, gazia ateratzen da iturritik; sufre gustokoa, sufre tartetik igarotzen bada, eta beroa, sua dan lekutik igarotzen bada.

B.—También los volcanes. Volcán se llama al monte que vomita fuego.

A.—Parece que resultan grandes males de los terremotos y volcanes.

B.—Hasta arruinar ciudades y hundirlas.

Si el agua dentro de tierra pasa por donde hay sal, manará salada de la fuente; sulfuroso, si pasa por entre azufre, y caliente si pasa por donde hay fuego.

II
J O L A S A K

(BERTSOTAN)

J O L A S A K

Arkangoitz-ko Markes jaunak Villafrance-n zuan Chateu Larralde-n igaro zituan Iturriaga-k 1839 ta 1840-g. urteak; esan det lenago ere. Etxe artan berritu zituan bere ipuien atal makalenak eta etxe artan idatzi zituan orain esku-artean darabilzkian *Jolas* oek. Iñon argitaldu gabekoak dira *Jolas*-ak. Eskutiztuta gero, Markes-en menpean utzi zituan Nikolas Arkangoitz jauna ta beintzat beren jabe, ta berari eskerrak ekarri al izan ditut nik onera.

Diálogos basco-castellanos deritzan liburuen antzeko gauzak dakarzkigute orri oek; baserritarrai dagozkiotenak. Lan luze-xamarren bat egiteko asmoak izatea baliteke, baña, zer-dala-ta ez dakigula, bukatu gabe utzi zuan. Bi jolas osatu zituan eta irugarrena asi ta beste gabe dago.

Bi baserritar, bi nekazari agiri dira jolas oetan. Batek, jakiteko galdetu egiten du;

besteak erantzun lagunari erakusteagatik Eia baserritarrak neurtitz zaleak diralako, ta erakuspen oei alik-eta bixigarri ugariena jartzeagatik, neurtitzez eginda daude alkar-izketa oek.

Jolas oek diotena baserritarrak irakurtzea, ta ikastea, ta egitea, ondo izango litzake, gure nekazariak ate-aldean zerbait ikasi bearra badute-ta. Guretzat ordea, lan oek beste alde batzuetatik begiratzen ditugunentzat, ez dute zer ikusi aundirik. Nekazariari zer-cdo-zer errez ta neke gabe erakusteko idatzi zituan *Jolasak*, eta orretarako ondo daude.

Oraindik iñon argitaratu gabeak diralako ipiñi ditut nik liburutxo onetan.

Mujika-ko Gregorio

“Ernaniar ospetsuak, Donostia'n, 1910”

LENENGO JOLASA

Anton: Zer diozute, Pello,
zuen familian?
Ez zaituztet ikusi
joan dan aspaldian.

Pello: Anton, ongi gerade,
Jaunari graziak,
guraso ta umeak,
morroi nagusiak.
Zuek zer diozute?
Osasunarekin
guztiok zeratela
txit naiko det jakin.

Anton: Gure etxean ere
senar emazteak,
guraso zarrak eta
orobat gazteak,
egun oro oztutzen
dizkizute oiak,
berezi gabetanik
neskame morroiak.

Pello: Sagar asko dezute
ballera onetan?
Sartzen asi dirade
batzuek kezketan.

Anton: Gaurdaño ez daukagu
gure auzoetan
zertaz kejaturika
ustez gai onetan.
Ostaje ederra dauka
arbolak oraindik,
esperantza andian
nago ni beintzatik.

Pello: Gure ume denboran
askoz andiago
etortzen zan arbola,
ori zertan dago?

Anton: Arbolak bear dute
denboraz mudatu,
ez beti lur berean
mota bat aldatu;
argatika oi dira
kejak maiz aditu,
sagar lurak dirala
biziro nekatu.

Pello: Baña zertatik dator
lurren nekatzea?
Txit konbeni litzake
ori jakitea.

Anton: Liburuetan iñoiz
nik zer deran leitu
esango dizut gustoz
nai badezu aditu.
Lurrak bere erraietan
dauzkan ezadeak
mota askokoak dira,
eta landareak
txupatutzen dituzte
bakoitzak bereak.

Pello: Erortzen naiz kontuan:
denbora luzean
arbola bat badago
txupatzen lurrean,
aren ezadeak beau
nai ta ez gutxitu
eta arbolak goseak
denboraz gelditu.

Anton: Arrazoi onegatik
arbol landareak
txit ondo artzen ditu
lurra mudatzeak.
Argatik len sagasti
egon dan lurrean
ez al da sagarrika
denbora luzean?

Pello: Egiaz len sagasti
egon dan tokia,
ez bazaio botatzen
txit maiz lur berria,
gelditzen da sagarrik
eman gabetanik,
eta nekazaria
nekatzen da alferrik.

Anton: Lenago goierrian
ziran sagastiak
eta beerrietan
txakolin maztiak.
An gaur bere aldia
du gaztañadiak,
emen berriz txit ondo
datoz sagastiak.

Pello: Ezin diteke, Anton,
iñolaz ukatu,
goierri lurrak ziran
sagastiz nekatu,
eta bear izan da
denbora luzea
sortzeko goierrian
sagar ezadea.

Asi dirade berriz
sagarrak aldatzen,
diotenez txit ondo
omen dute ematen;
sagasti zarrak mazti
ifintzen badira,
orain uste det emen
etorriko dira

Anton: Orobat gertatzen da,
Pello, aziakin,
nekazariak beau
gauza au ondo jakin.
Ala aurten garia
erein dan lurrean
ez dezu erein bear
datorren urtean.

Pello: Anton, ori badakit,
Jaunari graziak,
urte oro mudatzen
ditut nik aziak.

Anton: Landare edo azi bi
mota batekoak
lur berean dirade
txit auzo gaiztoak.
Enbidia diote
batak besteari,
eta biak txatarrak
oi dira etorri.

Pello: Kontu ateratzen det,
Anton, txekor biti:
azitzen badirade
errape batetik,
batak besteari dio
segurki enbidia,
edaten diolako
esnearen erdia.

Anton: Argatika bear da
lenaz ongi jakin
zer mota azitzen diran
ezade batekin.
Baldin bear badute
bakoitzak berea
ez da ausi lur herean
asko ereitea,
nork bere ezadea
dio txupatuko
eta guztiak erruz
dira etorriko.
Batez ere bear da
arreta andia
belarrai ez uzteko
egiten azia,
zergatika da, Pello,
gauza ikusia
duela aziak galtzen
arras lur guztia.

Pello: Badira orregatik
lur batzuek emen
ongi ematen dutenak
zernai erein arren,
dala beti artoa,
dala naiz ogia,
dala bata ta beste
guztia nasia.

Anton: Ori gertatzen zazu
gorotz askorekin
eta karez jantzirik
oi dauden lurrakin.
Orain, Pello nerea,
bear dezu jakin,
zenbat gauza dituen
lur batek berekin.

Pello: Esan zarazu, Anton,
dakizun guztia,
ifiñiko dizut nik
arreta andia.

Anton: Lur guztiak berenez
badute buztia,
kararriaren autsa
eta ondar fiña;
badute ere gorotza
zeña oi dan egin
abere, zain, belar ta
osto ustelakin.

Lau gauza oek dira
egiten dutena
lurra txit ona edo
balio ez duena.
Lauak baldin badaude
beren artean berdin,
lurra oi dute beti
guztiz ona egin.
Lauetan baldin bada
buztiña geiena,
euri gutxi joango da
lurraren barrena;
ibai erreketara
joanika guztia,
laister du lurrak berriz
euri egarria.
Karauts edo ondarra
badauka geiegi,
lurra gelditutzen da
lasai ta arroegi.
Zimaurrak ere beau
iduki neurria,
gutxiegi kalte da,
ez on geiegia;
faltak ematen oi du
landare txikia,
geiegik ale gutxi
ta lasto andia.

Buztiñak bear ditu
zañak sujetatu,
karautsak gatzak eman
ta lurra samurtu,
ondarrak edaten du
gogotik euria,
zimaurrek du ematen
ezade guztia.

Pello: Esker andiak, Anton,
dizkizut ematen,
guztizko pozarekin
zaitut nik aditzen.
Kontuan erortzen naiz
zure esanakin
nola lur txarra ona
ditekean egin.
Lurra zerbaitegatik
baldin bada galdu,
lau parteak beaira
beti igoaldu.
Argatika kareak
baitere ondarrak
ondutzen oi dituzte
gure buztin lurak.

Anton: Menast-mota asko dira
arkitzen lurrean,
zañetatika dira
sartzen landarean;
aiek ematen diote
beren kolorea,
beren usaia eta
beren saborea.
Menastak menenoak
berenez izanik,
landarean gelditzen
dira jan egiñik.
Landarera baño len
jaten balirake,
gizon ta abereak
galduak lirake;
berduran eta frutan
badituzte jaten,
gelditzen dira onik
lodi eta gizen.

Pello: Arritzeko gauza da
entzuten dedana,
nola jan biurtzen da
len meneno zana?
Abillidade latza
dute landareak,
asko zor dietegu
gizon ta abereak.

Anton: Ez da munduan gauza
andi ez txikirik
gizonaren burua
nastuko ez duenik,
baldin jarri nai badu
beregari pensatzen
gauza bakoitzarekin
zer zaion gertatzen.
Menesta izanika
meneno bizia,
bazkatutzen du bada
berdura guzia,
berduratik sortzen da
gero aragia,
au da, uste det, Pello,
gauza ikusia.
Jaten dituzte auntz ta
beste abereak,
guretzat menenoak
diran landareak,
ez genduke argatik,
Pello, zuk eta nik
antxume bat jateko
batere bildurrik.

Pello: Adoratu dezagun
Jaungoiko andia,
zer ontasuna au ta
zer jakinduria!

Anton: Landare ta aragiak
usteltzen badira,
berriz, Pello, lurrera
eramaten dira.
An landare berriak
dituzte bazkatzen
ta aberean aragi
dirade biurtzen.

Pello: Mundu au beti dabil,
Anton, jira bira,
ongi arritzekoak
gauza oiek dira;
gaur menast, biar belar
ta etzi aragi,
ez du gizonak zertzaz
arrotu geiegi.

Anton: Ez du abereak
batere parterik
lurra zimaurtutzeko
txit ona ez danik:
illea, azkazala,
bai ere ezurra,
gutziz onak dirade,
ez da au gezurra.

Bestela esan zazu:
erretzen badira
aien autsak txit onak
izango ez dira?
Argatika lekutan
ezaguerarekin
adar eta ezurrak
auts oi dituzte egin.

Pello: Au berau egiten da
belar guztiakin,
lur guztiak oi dute
autsa txit atsegin.

Anton: Jakin ezkerro ematen
kontuz, noiz ta nola,
da ere ongarria
abereen odola.
Landara ta aberetik
irten dan gauzarik
ez da arkitzen lurrentzat
txit ona ez danik.
Ala nekazariak
al duen guztia
loi-putzuan sar beza,
ez bada arria.

Ezin sinist diteke
gure errietan
nola abere illak
dauden bazterretan.
orobat esaten det
berdura ustelaz,
ezin konprenditu det
nik beintzat iñolaz.
Zergatik desegiten
dauden bitartean,
usai gaiztoa beti
uzten dute airean,
zeren menesta ari
dirade botatzen
ta aietatik kanpoan
meneno da sortzen.
Lurpean zelaietan
sartutzen badira,
denboraz gorotz onak
txit egiten dira;
onela osasuna
da alde batetik
eta lurrentzat protxu
andia bestetik.

Putzu zuloan sartzen
baldin baditugu,
kare bizi piska bat
bota beaiegu;
orduan desegiten
dira lasterrago
eta da errietan
osasun geiago.
Usteltasunika
dator izurria,
onen kontrarioa
da kare bizia.
Orra gaitzetik ona
nola dan sortutzen,
baldin guk alegiña
badegu egiten.
Iñoiz ematen zaio
kulpa patuari
eman bear ordean
gure buruari.
Gaitzakin badator maiz
gure erioa,
eskuan daukagu maiz
erremedioa.

Pello: Ezaguera balitz,
Anton, nerekiko,
orrenbeste bat jende
ez litzake ilko.
Nere aur denboratik
da nere ustean
txit asko aurreratu
garbitasunean.
Ez det beintzat ikusten
orduan adiña
jende pobre artean
sarna eta tiña.

Anton: Zikinkeria eta
edari biziak
ekartzen oi dituzte
gaitz ta izurriak.
Argatik jende pobre
ta nekazariak
beaute alegiñean
beti izan garbiak.
Kontuz edan bear da
edari bizia,
egun oro eltzean
sartu aragia.

Pello: Jakin nai nuke, Anton,
zer dan arrazoia
gariak izateko
onen maiz ordoia.
Lenago bakanetan
oi zuten izaten,
orain ordoi gaberik
ozta da arkitzen.
Ordoiak badirudi
gari izurria,
kausa eziñ izango
da zikinkeria,
ez da ere segurki
edadi bizia;
argatik jakin nai det
zer dan arrazoia
izateko garia
onen maiz ordoia.

Anton: Garia ereiten da
Azaro illean,
jaino gabe luzaro
dagoan lurtean
azitzen dalarika
anitz gutxi gorontz
eta zabaltzen dala
alegiñean berontz.

Gariak egon beau
Martxoan txikia,
nai badegu atzeman
Agostu andia.
Negu guztian dago
sustraiak botatzen,
sustrai askok du asko
ezade txupatzen.
Orduan etortzen da
gari indartia
eta zemuitu oi du
ekaizte guztia.
Baña baldin negua
gogorra ez bada,
garia beti gorontz
gogotik joango da.
Sustrai gutxi izango du,
dan ura txikia,
eta geldituko da
landare eria.
Gero baldin badator
naiz dala lanbroa,
naiz dala txingorra ta
orobat egoa,
adio gure gari
mardul ta arroa,
ordoiez beterika
galtzen da gajoa.

Argatika nai ditu
lur goietakoak,
sendoak berenez ta
gañera freskoak;
orduan etortzen da
gogorki azia
edo, orobat dana,
txit gaitz ikusia.

Pello: Ori bera gertatzen
da, Anton, gurekin,
konpara al bagaitez
gu landareakin;
gozandean bagera
txikitan azitzen,
edozein gauzak gaitu
gu ere gaizkitzen.
Argatik errepain bat
badegu diona
elur urtea dala
gari urte ona.
Ez da erregla oietan
sartutzen artoa,
zeñak nai oi du beti
lur samur artoa.

Anton: Egia andia da,
Pello, beti artoak
naiago dituela
lur samur arroak,
batez ere txit nai du
bero ta bustia,
edo turmoi denbora
eta sargoria,
zergatik turmoi leku
busti beroetatik
ekarri izan zuten,
Ameriketatik.
Laureun urte dirade
gutxi gora bera
etorri zala artoa
andika onera;
orduraño artorik
emen iñon ez zan,
ez ere garirika
an Ameriketan.
Andika ekarria
da ere batata,
zuk dakizun bezela,
janari on bat da.

Pello: Ez da janari txarra,
baña, diotenez,
zikintzen ditu lurrak
luzaroko zañez.
Argatika oietan,
joan dan aspaldian,
bakarrik dute ereiten,
Anton, luberrian.

Anton: Londresen, Parisen ta
beste asko lekutan
jaten dute batata
mairik onenetan;
guk artora oituak
zergatikan gauden,
begiz ezin ikusi
degu beñere emen.
Oartzen bazerade
berenez umeak
guztiak dira, Pello,
batata zaleak;
gero beti orobat
baluteke jaten,
ikusiko genduke
batata zabaltzen.

Ukatu zuelako
bi urtez artoak,
batataz bete ziran
emengo soroak;
artoa gero berriz
zan ematen asi,
turmoia pasa zan ta
Santa Barbara antzi.
Onela oi dirade
gizonen buruak,
alferrik irakurtzen
dira liburuak.
Ala ere bear det
erregla bat eman,
orain ez naiz oroitzen
non leitua dedan.
Irakurria daukat,
Pello, liburuan,
jokatu beaugula
joko seguruan;
erein bear da beti
azi mot guztitik
izateko batetik
ez bada bestetik,

garia eta baba,
illarra ta artoa,
guztiak bear dute
estali soroa,
ez aztu batez ere
beñere batata,
zergatika kosetxa
txit seguru bat da.

Pello: Onela ez da, Anton,
izango beldurrik
petardoa osoa
eramatekorik.
Gariarentzat bada
urtabe gaiztoa,
baba izango da asko,
bestela artoa;
oien faltan illarra,
batata bestenaz,
ez al du ukatuko
guztiak ain benaz.
Bat duenak baterez
oi dago esana,
guztitik ereitea
da seguruena,
obe da bakoitzetik
zerbait izatea,
ez asko edo baterez
batetik artzea.

Anton: Landareak izaten
oi dituzte gaitzak,
batez ere galdutzen
dituzte ekaitzak;
eguzkia badator
izotz ondorean,
urtuaz sartutzen da au
arras landarean.
Ez da gero zer joanik
frutuaren billa,
usteldu ta gelditzen
da barrenen illa.
Eguzki ordean bada
aizea etortzen,
bereala izotza
du onek txupatzen.
Lekutan kea dute
goizetik egiten,
onela landareak
dituzte legortzen.
Eguzkitik bear du
izotzak guardatu,
orduan fruta bada,
ez da zer dudatu.
Esango dizut, Pello,
kea zer gisatan
egiten omen duten
gaur asko lekutan.

Ifintzen oi dituzte
zelai bazterretan
iñastor ta lastoak
asko montoietan.
Uzten dituzte gero
su ondo emanik
goizetika aizea
datorren aldetik;
aizeak zabaltzen du
kea zelaiean
izotz arrazik ez du
uzten landarean.
Aizerik asko bada
alferrik da kea,
kea egin bear da
gutxi bada aizea;
onela gorde oi dira
lekutan maztiak,
lekutan sagasti ta
landare guztiak.

Pello: Injenio ona da
soroentzat guztiz,
batez ere badaude
aldaturik maztiz;
orrela artu ditezke
urte oro frutak,
izan arren berenez
mañati samurrák;

onelakoak, Anton,
dira gereziak,
gingak, albertxikuak,
muxika andiak.

Anton: Arrak dirade berriz
landareen etsayak,
jaten dizkate ostoa,
azal ta erraiak;
denbora baldin bada
udarontz zakarra
sargori bustiakin
faltako ez da arra.
Landarean bareak,
ingumak, euliak,
negurako egiten
dituzte kabiak.
Antxen bakoitzak bere
arraultzak utzirik,
udarako gelditzen
dira berak illik.
Konbeni dan denbora
badute izaten,
arraultzetatik arrak
dirade irteten.
milloika asten dira
ostoa ta aleak jaten,
txit uguitu artean
ez dirade joaten.

- Pello:** Argatika ikusten
oi da ostajea
diruriela askotan
Flandesko enkajea,
aitortu bear degu,
Antontxo nerea,
andia dala arren
abilidadea.
- Anton:** Jaten balute, Pello,
bakarrik ostoa,
enkajea litzake
nere gustokoa;
baña fruta ta aleak
bait-dituzte jaten,
nekazaria dute
ezer gabe uzten.
- Pello:** Egia andia da,
ori badakit nik,
ez al da arrentzat, Anton,
erremediorik?
- Anton:** Asko ematen dira,
bat ere ez onik,
bendipein gaurdaraño
ez dakit beintzatic;
bat bakarra liteke
ta au imposiblea,
zeña dan landareak
maiztxo garbitzea.

Pello: Guretzat on bada, Anton,
maiztxo garbitzea,
landareentzat ez da
izango kaltea,
baña ez litzateke
zeregin gaiztoa
garbitutzen astea
landareen lastoa.

Anton: Jakin beazu bada,
Pello, lan onetan
dituztela garbitzen
arbolak lekutan;
zatar busti batekin
ongi igortzirik
azala uzten dute
zillar bat egiñik.
Onela galtzen dira
arraultz eta arrak
zeñak jaten dituzte
tronko ta adarrak,
frutak dirade askoz
etortzen obeak,
baita ere luzatzen
arholen urteak.

Pello: Ikusten det, litzake
erremedio ona
egin al baliteke
Antonek diona,
baña nola gari ta
arto landareak
garbi zatarrakin
soroen jabeak?

Anton: Esango dizut, Pello,
zer dedan ikusi,
ogei urte ez dira
oraindika noski.
Arrak eraman zuen
zan arbi guztia,
bakarrik libratu zan
Praxkuren zelaia.
Goizetik bidaldutzen
zituen sorora
bere ume guztiak
arrak bildutzeraz;
katilluak eskuan
zebiltzan txit pozik,
uzten zutela arbia
libre arretatik.

Egiten ez duena
iñoiz asko nekek,
egiten oi du, Pello,
pensamentu batek.
Egin bear zutena
andiak neketan
orra non egin zuten
aurrak jostaketan.

BIGARREN JOLASA

Pello: Eziñ esan nezake,
Anton, zer atsegin
zure jolasak atzo
ziran niri egin.
Nai nuke ganaduaz
gaur itzegitea,
gustoz dezagun biok
pasa arratsaldea.

Anton: Ganaduak bear du
guztien gañean
garbitasun andia,
Pello, bere eian;
garbitasunarekin
janari erdia
obe du, ez osoa
ta zikinkeria.

Emen garbitzen diran
bezela zaldiak,
garbitzen dira Suiza-n
bei eta idiak;
ukulluan gorotzik
ez da an ikusten,
egiñ ala kanpora
dute ateratzen.
Galtzada txee bat dute
ixuri antzean
beren oitzat, ta daude
beti legorrean;
buztanak berriz gorontz
dauzkate lotuak,
ala beti garbiak
daude ganaduak.
Gustoa da abere
aiek ikustea.
larruak badirudi
oso oso tripea;
gizenez berriz daude
guztiak lertutzen
eta gureak ainbat
ozta dute jaten.

Egia da daukate
beti umetxo bat
jaten ematen diena
noizik bein piska bat,
ez dirade onela
beñere uguitzen
eta gogotik beti
dute guztia jaten.
Erratzarekin dabil
umea jostatzen,
aiek egiñ al gorotz
kanpora ateratzen.
Errekatxo bat dago
atzeko aldetik,
zulo batera doa
pixa guztia andik.
Burnizko orratzea
eta eskobilla
eskuan dituela,
goiz oro mutilla
dijoa ukullura
aiek garbitzera
eta gero edaten
bertan ematera.

Abereak ez du bear
etxetik atera,
ez bada zelaietan
lana egitera,
bestera izango da
kalte gorotzean,
kalte alean eta
kalte belarrean.

Pello: Gauza jakiña dezu
abereen oña
dala lur guztientzat
guztizko pozoiña;
beste aldetik herriz
da garbitasuna
abereai ematen
diena osasuna.

Anton: Suiza-n ta Holanda-n
bai ere Flandes-en
ara nola dituzten
askok beiak jeitzen.
Sabeletika ozta
da txala irteten,
amagandika urrun
dute eramaten.

An ifinten diote
oritza kaikuan
eta edan-arazten
ara zer moduan:
eskua dute esnetan
sartutzen bildurik
erdiko beatzaren
punta agerturik.
Txalak, ustez duela
amaren titia,
edaten du poliki
dan oritz guztia,
zergatika asten da
beatza txupatzen
ta onen arrimoan
oritza edaten.
Egun gutxi barruan
esku gabetanik
edaten du ederki
esnea kaikutik.
Ez diote utzitzen,
jeizten dutenean,
esnearen tantorik
beiari errapean.
Zenbat eta geiago
duten beia jeizten
anbat esne geiago
diote ematen.

Pello: Gusto andiarekin:
det, Anton, ikusi
modu orretan txalak
ditezkeela azi.

Anton: Arreta andiarekin
gazta dute egiten,
zergatik diru asko
diote ematen.
Ozta da arkitzen emen
gaztagille onik,
ez guria egiten
ongi dakienik.
Lastima andia da,
izanik esnea,
gazta ta guri billa
kanpora joatea;
utziak geralako
gure diruakin,
oi digute arrotzak
beti gerra egin.
Gazta dute oiek txit
politki pintatzen,
guria dute berriz
ederki gazitzen.

Holanda-ko gazta ta
Flandes-ko guria
sal bitza nai duenak
salera andia,
bizkitartean emen
bata ta bestea
diran baño obeak
gaitz da izatea.
Desengaña gaitezen,
ase beau begiak
jateko emateko
guri gutiziak.
Begiak dute beti
biotza mugitzen,
ikusi gabe ez dute
negarrik egiten.
Gauza oiek txit ondo
dakizkite atzeak,
argatika dirade
aiek ain trebeak,
eta au onela bada,
esazu zergatik
egon beagu zerbait
jakin bagetanik.

Pello: Aitor dezagun, Anton,
gera jende narra,
argatika egiten
digute aiek farra.

Anton: Kolorea, nai badezu,
da ilusioa,
gizonak beti beau
izan juizioa,
bafia jaki ederrak,
ez da ukatzekoa,
ematen oi duela
jateko gogoa.

Pello: Ori egia da, Anton,
gazta Flandes-koa
ikustean, etortzen da
jateko gogoa;
gureak geienean
duen kolorea
nazka ematekoa da
ta goragalea.

Anton: Izaten oi da, Pello,
gaztarik onena
gatzagi ona eta
txit gutxi duena;
txarra ta askorekin
baldin bada egin,
ditu usai gaiztoa ta
begi asko berekin.
Ogiak begi asko,
gaztak herriz gutxi
bear duela izan
edozeñek daki.

Emateko barrenen
ori kolorea
asko da izatea
lirio lorea;
kendurika berekin
daukan auts oria,
nastutzen da arekin
gaztore guztia.
Kanpotik emateko
berriz gorri fiña,
botikan erostea
daukate karmiña.
Kolorez ederra ta
gusto onekoa
orra non izango dan
salera andikoa.
Belar legorra eta
usai gozokoa
bear da izateko
gazta gustokoa;
beti gazta egiteko
da askoz ohea
ardiarena baño
beiaren esnea.

Norbaitek esango du
inpertinenziak
diradela arentzat
gauz oiek guztiak,
baña jakin bear da
gauza oiek gabe
ez gerala izango
gure diruen jabe;
kanpora joango dira
gaurdaño bezela
eta izango gera
pobreak onela.
Saiatzen ez danentzat
ez dago mundurik,
zerutika ez zaie
jatxiko dirurik;
onak egiten gaitu
okupazioak,
dakazki alferkeriak
gure bizioak;
langilleak irabazten
du alde bitara,
alferrak herriz galtzen
alde guztietara.

Pello: Ez litzake bear
emen baserririk
amabitxo bat ardi
ez litukeenik.
Kalte andikoak dira
artalde andiak,
oiek galtzen dituzte
emengo mendiak;
artzaiak emateko
belarra ardiai
sua ifintzen diote
baso guztiai.
Argatik ez da arkitzen
gaur iñon basorik,
egia ez dalakoan
onetan kasorik.

Anton: Nola Gaztelan ez dan,
Pello, baserririk,
jabeak ezin dute
zaitu ganadurik;
argatik zai bat dute
soldatan ifintzen,
guztien ganaduak
onek ditu zaitzen.

Pello: Ori egin diteke
emen ere erraz,
nai baliteke artu
egiteko au benaz;
udarako artzaia
topatzearekin
neguan ganadua
luke nork berekin.

Anton: Ez litzake txit gaitz au
erregelatzea,
eta alde bitara
ongi irabaztea,
kendurika batetik
mendian kaltea,
ongi geldi liteke
baserri jabea.
Lirake onetarako
txit onak billarak,
erderaz kofradiak
deitzen diotenak.

IRUGARREN JOLASA

Anton: Lau gauzak konpondutzen
dute sagardoa,
bai ere txakoliña,
orobat ardoa:
ura, aguardinta
eta binagrea,
laugarrena da berriz
ikatzaren partea.
Lauak baldin badaude
beauten neurrian,
jendea izango da
sagardotegian.
Euri urteak dakar
sagardoa gazia,
urte legorrak berriz
guztizko ezta.

Pello: Euriz ugaritsua
danean urtea,
ez da gaitz sagardoa
ona egitea.
Nik emango nioke,
banuke nerea,
edo ezti piska bat
edo azukrea.

Anton: Azukrea da, Pello,
orobat ezitia,
orrela emateko
gauza garestia,
baña guk baditugu,
Jaunari eskerrak,
sagardoak ontzeko
landare ederrak.
Erregaliza dezu
oietatika bat,
zeñak ezitzen duen
nai dezun adin bat;
libra lau kuartoan da,
iru ontzarekin
karga sagardo ona
dezazuke egin.

Anton: (1)



(1) Len ere esan dan bezela, bukatu gabe utzi zuan Iturriagak bere lan au, oneraño bakarrik eginda.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

- 1.—R. Artola
SAGARDOAREN GRAZIYA ta beste bertso asko. (Aitua).
- 2.—M. Soroa
GABON, AU OSTATUBAI, ANTON KAIKU.
- 3.—F. Apalategui, S. I.
EUSKAL MUTILLAK ARMETAN, I.
- 4.—Pepe Artola
USTEZ LAGUN DETAN ta beste bertso asko.
- 5.—P. Urruzuno
EUSKALERRITIK ZERURA ta beste bertso asko.
- 6.—Toribio Alzaga
RAMUNTZO.
- 7.—Ramos Azkarate
GALTZAUNDI ta beste bertso asko.
- 8.—Antero Apaolaza
PATXIKO TXERREN
- 9.—Bitoriano Iraola
OROITZAK ta beste ipai asko.
- 10.—Bertsolariak
ERBEGE EGUNEKO BERTSO SAYOA
(1962).
- 11.—Piarres Larzabal
BORDAXURI.

- 12.—Bilintx
BERTSO TA LAN GUZIAK.
- 13.—Mariano Izeta
DIRUA GALGARRI.
- 14.—Piarres Larzabal
IRU ZIREN
- 15.—Bertsolariak
EZKONTZA GALDUTAKO BERTSOAK, I.
- 16.—Alfonso M.^a Zabala
GABON GAU BAT ta beste ipui asko.
- 17.—Antonio M.^a Labayen
MALENTXO, ALARGUNI
- 18-19.—Antonio Zavala, S. I.
TXIRRITA (Bizitza ta bat bateko bertsoak).
- 20.—Franzisko Goñi, S. I.
LURDESKO GERTAERAK.
- 21.—Piarres Larzabal
HERRIKO BOZAK edo NOR ALKATE.
- 22.—Bertsolariak
**BERTSOLARIEN TXAPELKETA
(30-XII-1962).**
- 23.—AIZKOLARIAK ta beste ipui asko.
- 24.—Fermin Imaz
BERTSO GUZIAK.
- 25.—A. P. Iturriaga
JOLASAK.

IMPRESO EN ESPAÑA